

**HIZKUNTZEN ERABILERAREN
KALE NEURKETA
GARES 2022**



Ayuntamiento de **PUENTE LA REINA**
GARESko Udala

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. GARESKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA	3
2.1. Hizkuntza gaitasuna	4
3. METODOLOGIA	6
3.1. Landa lana	6
3.2. Ibilbideak, egutegia eta ordutegiak	7
3.3. Unibertsoa, lagina eta emaitzen akats tartea	8
3.4. Galdetegia	9
4. EMAITZAK	10
4.1. Emaitza orokorrak	10
4.2. Hiztunen ezaugarrien araberako emaitzak	12
4.2.1. Generoa	12
4.2.2. Adina	14
4.2.3. Haurren presentzia	18
5. ONDORIOAK	21
6. ERANSKINAK	23
6.1. Aplikazioa	23
BIBLIOGRAFIA	26

1. SARRERA

Garesko Udalak jakin nahi du egungo egoera zein den hurrengo plangintzaldirako plana egiteko. Diagnostikoa osatzeko datu bilketa egin dugu eta hor kokatua dago kale neurketa hau.

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutelarik, anitzetan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean euskara zenbat erabiltzen den, hain zuzen ere.

Kale-erabileraren neurketak, hortaz, errealitate horren berri ematen digu modu zuzen eta objektibo batean. Kale-erabileraren datua funtsezkoa da herri mailan hizkuntza- errealitatea ezagutu edota planifikatzeko.

Garesko euskararen plan estrategikoa diseinatzeari begira, garrantzitsua iruditu zaigu kale-erabilera zein den ezagutzea. Horrela, hemendik aurrerako plangintzaldi bakoitzaren amaieran, karrikan dagoen errealitatea ezagutz eraginkortasunez erantzutea errazagoa izanen delakoan.

2. GARESKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Ez da erraza izan Garesko egoera soziolinguistikaren berri ematen duen daturik harrapatzea, izan ere, une honetan zailtasunak daude 5000 biztanle baino guttiagoko herrietako datuak eskuratzeko. Bertzeak bertze, "2016ko IV inkesta soziolinguistikoa" eta "azterketa soziolinguistikoa 2018" txostenetan ematen diren datuak eremu mistoaren ingurukoak dira.

Izarbeibar/Novenera: Eskualde mailako datuak dira, baina ez dute erabat Garesko errealitatea islatzen. Noveneran dagoen euskararen erabileraren datuek ez dute Gareskoarekin zerikusi handirik, eta horrek, datuen desitxuratzea edota aldatzea dakar.

Ulertzen dugu Iruñerriako eta Nafarroako datu mistoko datuak direla Garesko erabileraren datuetara gehien hurbiltzen direnak.

Txosten honetara aipatutako datu guztiak ekarri nahi izan ditugu.

2.1. HIZKUNTZA GAITASUNA

2.1.1. Izarbeibar/Novenera:

2018an Nafarroako estatistika erakundeak Izarbeibar/Novenera eskualdean egindako inkesta soziala eta bizi-baldintzen inguruan jasotako datuen arabera:

- 15 urtetik goitiko pertsonak, haurtzaroko lehen hizkuntzaren (3 urtera arte) eta etxean gehien mintzatzen den hizkuntzaren arabera. Aldagai soziodemografikoen araberrako sailkapena:

Izarbeibar-Novenera	Osotara	LEHEN HIZKUNTZA HAURTZAROAN			
		Euskera	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Bertze hizkuntza batzuk
Biztanleria	10.604	:	9.612	:	896
Ehunekotan	100,0	:	90,6	:	8,4

Izarbeibar-Novenera	Osotara	ETXEAN GEHIEN MINTZATZEN DEN HIZKUNTZA			
		Euskera	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Bertze hizkuntza batzuk
Biztanleria	10.604	:	10.308	:	:
Ehunekotan	100,0	:	97,2	:	:

- 15 urtetik goitiko pertsonak, euskararen ezagutzaren arabera sailkatuta, aldagai soziodemografikoen arabera:

Izarbeibar-Novenera	Osotara	ULERTZEN DUT...				
		Ongi	Nahiko ongi	Zerbait	Hitz batzuk	Deus ez
Biztanleria	10.604	634	490	571	4.198	4.712
Ehunekotan	100,0	6,0	4,6	5,4	39,6	44,4

Izarbeibar-Novenera	Osotara	MINTZATZEN NAIZ...				
		Ongi	Nahiko ongi	Zerbait	Hitz batzuk	Deus ez
Biztanleria	10.604	589	:	653	2.732	6.434
Ehunekotan	100,0	5,6	:	6,2	25,8	60,7


Izarbeibar-Novenera	Osotara	IRAKURTZEN DUT...				
		Ongi	Nahiko ongi	Zerbait	Hitz batzuk	Deus ez
Biztanleria	10.604	534	432	516	1.233	7.889
Ehunekotan	100,0	5,0	4,1	4,9	11,6	74,4

Izarbeibar-Novenera	Osotara	IDAZTEN DUT...				
		Ongi	Nahiko ongi	Zerbait	Hitz batzuk	Deus ez
Biztanleria	10.604	528	362	404	1.197	8.113
Ehunekotan	100,0	5,0	3,4	3,8	11,3	76,5

Euskara mintzatu, idatzi, irakurri edo ulertu 'ongi', 'nahiko ongi' edo 'zerbait'	
Biztanleria	1.720
Ehunekotan	16,2


2.1.2 Eremu mistoa: Euskararen ezagutza datuak. Garesko errealitateari gehiago hurbiltzen dira. Iturria: 2016ko IV inkesta soziolinguistikoa. Emaitzak ehunekotan jasoak.

2016



2.1.3 Iruñerriko datuak. Euskararen ezagutza datuak. Garesko errealitateari gehiago hurbiltzen dira. Iturria: 2018ko Nafarroako datu soziolinguistikoak. Emaitzak ehunekotan jasoak.

2018



3. METODOLOGIA

Garesko Udalak lehenbiziko aldiz neurtu du herriko karriketako hizkuntzen erabilera. Ahize-AEK-ko lantaldeari eskatu dio plana eta hizkuntzen kale erabileraren neurketa egiteko, eta Garesko Udaleko Euskara zerbitzuarekin batera diseinatu da ondotik.

Azterketa hori egiteko Euskal Herrian tradizio luzea duen kale neurketaren metodologia erabili da. Euskal Herriko karriketan egindako neurketa hauek 1989an abiatu ziren Siadecoren eta Euskal Kultur Batzordearen (EKB) eskutik, eta 2001etik Soziolinguistika Klusterrak egiten ditu.

Kale neurketaren metodologia behaketa zuzena da; hau da, neurtzaileek herriko karriketan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen dute, deus galdetu gabe. Hala, hiztunek ez dakitenez behatuak izaten ari direnik, neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dute.

Hala ere, ezin erran daiteke neurketa hauetan jasotakoa Garestarrek erabiltzen dituzten hizkuntzen isla denik, Garesko karriketan jaso dena baizik. Ezin baita ziurtatu kaleko hiztun denak bertakoak direnik.

Behaketak 2022ko ekainean egin dira. Bi orduko sei behaketa egin dira Garesko karriketan. Kale neurketako behatzaileak Garazi Blas Tobalina, Xabier Mitxelena Irizar eta Oianko Garde Jaunsaras izan dira.

Txosten hau 2022ko uztaila, iraila eta urrian zehar idatzi da.

3.1. LANDA LANA

Landa lana egin baino lehen, neurtu beharreko karririk aitzinetik identifikatu dira, eta ibilbide desberdinak zehaztu. Horretarako irizpide nagusia herriko karririk jendetsuenak biltzea izan da: eskola inguruak, plaza inguruak, parkeak, kirol guneak, eraikin publikoak, taberna eta denda guneak. Ibilbidearekin batera, neurketarako egunak eta orduak ere definitu dira, eta horretarako herritar denak estatistikoki neurtuak izateko aukera lehenetsi da.

Erabileraren neurketa lehenbiziko aldiz egin da Garesen, hortaz, ez zegoen lehengo erreferentziarik eta aitzinean aipatutako irizpideak aintzat hartu ditugu ibilbideak egiteko.

3.2. IBILBIDEAK, EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

Ibilbide hauek diseinatu dira 2022ko Garesko hizkuntza erabileraren kale neurketa egiteko:

- **1. ibilbidea:** Herriguneko dendak (erosketak) + eskola irteerak + IES eta Batxilergo autobus geltokia.

Fray Vicente Pasalekua (DIA), San Pedro kalea, Kale Nagusia, Nafarroako Gorteen kalea, Harresi zaharra (Super Herti, haur-eskola, autobus geltokia IES eta batxilergoa), Murugarren kalea, Larrandia pasalekua (eskola), Señorío de Sarría errepidea, Don Rodrigo kalea, Kale nagusia, Nafarroako Gorteen kalea, Foruen Pasalekua + Fray Vicente pasalekua (DIA)

- **2. ibilbidea:** Eskola irteerak + haur eta gurasoen gunek; eskolak patioak + parkeak.

Fray Vicente Pasalekua, San Pedro kalea, Kale Nagusia, Nafarroako Gorteen kalea, Harresi zaharra, Murugarren kalea, Larrandia pasalekua (eskola), Señorío de Sarría errepidea, Calvario kalea, Intxaurren kalea, Miguel de Aralar plaza/Zumake kalea, Intxaurren kalea, Calvario kalea, Nafarroako Gorteen kalea, Foruen Pasalekua, Fray Vicente Pasalekua

- **3. ibilbidea:** Herriguneko dendak (erosketak) + taberna gunek (aperitifa).

Kale Nagusia, Mena enparantza, Kale nagusia, San Pedro kalea, Harresi zaharra (merkatua), Rodrigo Ximenez, San Pedro, Kale Nagusia, Nafarroako Gorteen kalea, Foruen pasalekua + Fray Vicente ezker, Fray Vicente Pasalekua + Foruen pasalekua eskuin, Nafarroako Gorteen kalea, Kale Nagusia

- **4. ibilbidea:** Gazteak mugitzen diren gunek; Kirolegia + eskolaz kanpokoak + pilotalekua.

Larrandia pasalekua (eskola), Harresi Zaharra, Irunbidea kalea (Gares Training eta buelta), Nafarroako Gorteen kalea, Osabidea pasalekua + (kirolegirako sarrera), Foruen Pasalekua, Mendigorriako errepidea, Pasaleku Naturalerako jaitsiera, Ibai ondoko pasalekua, San Pedro kalea, Murugarren kalea, Larrandia pasalekua.

- **5. ibilbidea:** Ostatu inguruak (poteoa)

Harresi zaharra (Very taberna), Nafarroako Gorteen kalea, Kale Nagusia, Ibai ondoko pasalekua, Fray Vicente Pasalekua, Foruen Pasalekua, Osabidea pasalekua + (kirolegirako sarrera), Foruen Pasalekua (eskuin aldetik), Mena enparantza, Kale Nagusia behera, San Pedro, Harresi zaharra

- **6. ibilbidea:** Umeak eta gazteak mugitzen diren gunek; igerilekua + patioak + plaza + futbol zelaia + pilotalekua.

Foruen Pasalekua, Osabidea + (kirolegirako sarrera), Erregeen abelbidea, Kanpotxeta, San Pedro kalea, Murugarren kalea, Larrandia pasalekua (eskola), Aritzaldea pasalekua, Santa Ana kalea, Sarriako errepidea, Harresi zaharra, San Pedro kalea, Kale Nagusia, Mena enparantza, Foruen Pasalekua, Fray Vicente Pasalekua.

Ibilbideak zehaztuta, egun eta ordu hauetan egin dira behaketak:

1. IBILBIDEA	Ekainak 7, asteartea, 12:30 - 14:30
2. IBILBIDEA	Ekainak 9, ortzeguna, 15:30 - 17:30
3. IBILBIDEA	Ekainak 11, larunbata, 12:00 - 14:00
4. IBILBIDEA	Ekainak 15, asteazkena, 16:30 - 18:30
5. IBILBIDEA	Ekainak 17, ortziralea, 19:00 - 21:00
6. IBILBIDEA	Ekainak 23, ortzeguna. ¹ , 17:00 / 19:00
Neurketan igarotako orduak: 12 orduko neurketa	

3.3. UNIBERTSOA, LAGINA ETA EMAITZEN AKATS TARTEA

- **Unibertsoa:** Garesko karrketan entzun daitezkeen elkarrizketak. 2021eko erroldaren arabera, (na)stat-en (Nafarroako estatistika erakundea) datuen arabera, 2.920 biztanle erroldatuak dira Garesen, horietako 1501 gizonezkoak eta 1419 emakumezkoak.
- **Lagina:** neurketa egin den egunetan 345 elkarrizketa erregistratu dira, guztira 948 hitzun.

2022ko behaketak egin direlarik hainbat gertakari izan dira; ekaineko bero izugarriak eta suteak bai Garesen baita inguruko herrietan ere.

Gertakari horiek guztiek eragina izan dute karrkako giroan, beroekin jende guti ibili delakoz eta zaila izan da karrikan barrena jendea harrapatzea.

Suteek aldiz, ekainaren 23ko neurketa eguna gibelatzea ekarri zuen, ekainaren 27ra, justuki egun horretan ez zuen eguraldi ona egin, eta horrek gazteen gunetan pertsona gutiago egoteak eragin zuen.

- **Akats tartearen kalkulua (ausazkoak diren laginendako):** $\pm 2,62\%$ koa elkarrizketen lagin osoarendako, 95% eko konfiantza mailan.

1. **6. ibilbidea:** 17:00 – 19:00 * ekainak 27, astelehenarekin egin zen. Behaketa egunez aldatzea adostu genuen, ekainaren 18an eta 19an Garesen (eta inguruko herrietan) suteak egon zirelako. Herria ez zegoenez ohiko egoeran behaketa atzeratzea erabaki genuen. Aldaketa Euskara Teknikariarekin kontrastatu zen.

3.4. GALDETEGIA

Behaketatik jasotako datuak sakelako telefonoaren bidez bildu dira. Horretarako galdetegi bat sortu da, eta automatikoki erregistratu dira beren-beregi diseinatutako aplikazio batean.

Aldagai hauek neurtu dira: elkarrizketetako hizkuntzak, elkarrizketako partaide kopurua, haurrak edo umeak elkarrizketako parte ote diren, eta adinaren zein generoaren arabera sailkapena.

Jasotako informazioaren bidez, hizkuntzaren erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, ondorengo aldagai hauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera eman dute: sexuaren eragina, adinaren eragina, haurren presentzia eta neurtzen den taldean dauden hiztun kopurua.

4. EMAITZAK

4.1 EMAITZA OROKORRAK

Garesko karriketan euskaraz entzundako elkarrizketen kopurua 2022an:

- Elkarrizketen % 4,3 izan dira euskaraz.

Garesko karriketan entzundako elkarrizketen % 2,4 ele bietan izan dira: % 1,2 nahasian eta % 1,2 bi hizkuntzatan. Aipagarria da euskaraz eta gaztelaniaz gain bertze hizkuntzatan aditutako elkarrizketa kopurua % 9,9.

HIZKUNTZA	2022			
	Elkarrizketak		Hiztunak	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskara	15	4,3	41	4,3
Gaztelania	288	83,4	794	83,8
Nahasian ²	4	1,2	10	1,1
Biak ³	4	1,2	12	1,3
Bertze hizkuntzak	34	9,9	91	9,6
Denetara ⁴	345	--	948	--


1. taula: Hizkuntzen kale erabilera orokorra, elkarrizketa eta hiztun kopurua (kopurua eta ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022

2 Nahasian: solaskide berberak bi hizkuntzak partekatzen dituzte.

3 Biak: bat(zu)ek euskaraz, eta bertze bat(zu)ek gaztelaniaz.

4 Hauek izan dira neurtzaileek jasotako hizkuntzak: alemana (1), frantsesa (4), ingelesa (6), arabiera (10), portugesa (1) eta gainerakoak ez dira identifikatu.

Hizkuntzen kale erabilera orokorra (2022)




1. grafikoa: Hizkuntzen kale erabilera orokorra, elkarrizketa kopurua (ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022.

Grafiko nagusiak elkarrizketa kopuruak kontuan hartuta ateratakoak izan dira. 345 elkarrizketa behatu dira 2022an, eta horietan 948 hiztunek hartu dute parte. Hau da, banaz bertze, elkarrizketa bakoitza 2,8 pertsonakoa izan da.

4.2. HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO EMAITZAK


4.2.1. Generoa

Kale erabileran jasotako elkarrizketetan egon diren solaskide kopuruak aintzat hartuz gero, Garesen emakumeek euskara gehiago erabili dute gizonak baino. Euskaraz ari ziren hiztunen % 63,4 emakumeak izan dira, eta % 36,6 gizonak. Alegia, bi generoen arteko euskararen erabileraren aldea ia hogeita zazpi puntukoa da (26,8).



2. grafikoa: Hizkuntzen kale erabilera orokorra, elkarrizketa kopurua (ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022.

Elkarrizketa denak kontuan hartuz gero ere, emakumezko solaskideak izan dira euskaraz gehien aritu direnak. KALEAN solasean ari ziren emakumeen % 2,7 ari ziren euskaraz, eta gizonen % 1,6.




3. grafikoa: Euskarazko elkarrizketen banaketa, generoaren arabera (ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022

HIZKUNTZA	2022			
	Emakumeak		Gizonak	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskaraz	26	5,3	15	3,3
Gaztelaniaz	418	84,6	376	82,9
Nahasian	9	1,8	1	0,2
Biak	3	0,6	9	1,9
Bertze hizkuntzak	38	7,7	53	11,7
Denetara	494	--	454	--


2. taula: Hizkuntzen kale erabilera, generoaren arabera (kopurua eta ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022

4.2.2. Adina

Helduak dira euskara gehien erabiltzen dutenak % 51,22 eta ondotik, haur eta umeen taldea % 47,62 erabilerarekin. Gazteen eta adinekoen artean ez da euskarazko elkarrizketarik entzun % 0,00. Gazteen elkarrizketak jasotzeko propio ibilbide oso bat diseinatu da eta bertze bat ume eta gazteak mugitzen diren gunetarako, bertzeak bertze, zonalde hauetan aritu gara beraien hizkuntza ohiturak jasotzen: kiroldegia, frontoia, igerilekua, patioa, plaza, futbol zelaia, autobus geltokiak...



4. grafikoa: Euskara erabilera, generoaren arabera (ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022.



5. grafikoa: Euskara erabilera, adinaren arabera (ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022

HIZKUNTZA	2022									
	0-14		15-24		25-64		65<		Denetara	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskaraz	20	2,1	0	0	21	2,2	0	0	41	4,3
Gaztelaniaz	205	21,6	88	9,3	434	45,8	67	7,1	794	83,8
Biak nahasian	4	0,4	1	0,1	3	0,3	2	0,2	10	1
Biak	7	0,7	0	0	5	0,5	0	0	12	1,2
Bertze hizkuntzak	17	1,8	3	0,3	69	7,3	2	0,2	91	9,6
Denetara	251	--	92	--	532	--	71	--	948	--

3. taula: Hizkuntzen kale erabilera adinaren arabera (kopurua eta ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022 .


HIZKUNTZA	2022									
	0-14		15-24		25-64		65<		Denetara	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskaraz	20	2,1	0	0	21	2,2	0	0	41	4,3
Emakumeak	14	11,6	0	0	12	4,2	0	0	26	5,3
Gizonak	6	4,5	0	0	9	3,6	0	0	15	3,3
Gaztelaniaz	205	21,6	88	9,3	434	45,8	67	7,1	794	83,8
Emakumeak	96	79,3	45	95,7	239	83,9	38	82,7	419	84,8
Gizonak	109	82,6	43	95,6	195	78,9	29	86,7	377	83
Biak nahasian	4	0,4	1	0,1	3	0,3	2	0,2	10	1
Emakumeak	3	2,5	1	2,1	3	1,1	2	4,9	9	1,8
Gizonak	1	0,8	0	0	0	0	0	0	1	0,2
Biak	7	0,7	0	0	5	0,5	0	0	12	1,2
Emakumeak	1	0,8	0	0	2	0,7	0	0	3	0,6
Gizonak	6	4,5	0	0	3	1,2	0	0	9	2
Beste hizkuntzak	17	1,8	3	0,3	69	7,3	2	0,2	91	9,6
Emakumeak	7	5,8	1	2,1	29	10,2	1	2,4	38	7,7
Gizonak	10	12,9	2	4,4	40	16,2	1	3,3	53	11,7
Denetara	251	26,6	92	9,7	532	56,1	71	7,5	948	100
Emakumeak	121		47		285		41		494	
Gizonak	132		45		247		30		454	

4. taula: Hizkuntzen kale erabilera adinaren eta generoaren arabera (kopurua eta ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022

Deigarria da, haurtzarotik gaztarorako saltoan ematen den jaitsiera euskararen erabileran, bi puntukoa. Gazte horiek adinean aitzinerat egin ahala, badirudi euskara gehiago erabiltzeko hautua egiten dutela, aunitz ez bada ere helduek haurrek baino gehiago erabiltzen baitute. Baina adinean aitzinerat eginez gero, berriz ere kolpetik jaisten da euskararen erabilera. Hau da, belaunaldien arteko euskararen erabilera gorabeheratsua da.

Euskal Herriko hizkuntzen kale neurketetan agertu ohi den fenomenoaren kontrakoa da hori. Izan ere, haurren ondotik gazteek erabiltzen dute euskara gehien, eta helduen ondotik gutien erabiltzen dutenak adinekoak dira. Aitzitik, 2021eko azken neurketen arabera, Iruñerrian, haurren ondotik helduak izan ziren euskara gehien erabili zutenak; eta gazteen erabilera baino baxuagoa adinekoek⁵. Garesko joerak, beraz, eskualdekoarekin antzekotasuna du.

Garesen ere datuak horrela ematen dira, bai haur eta helduen artean emakumeak dira euskaraz gehien aritzen direnak. 0-14 urteko artean 7 puntuko aldea dago eta 25-64koen artean berriz, puntu erdia baino pixka bat gehiagoko aldea dago.



6. grafikoa: Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera (ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022.

5 2021eko Euskal Herriko kale erabileraren neurketaren arabera, Iruñerrian honakoak izan ziren adinaren araberako datuak: haurren artean euskaraz ari ziren behatutakoen %5,17, helduen artean % 3,5, gazteen % 1,6 eta adinekoen % 0,8.


4.2.3. Haurren presentzia

Euskararen erabilerak nabarmen egiten du goiti haurrak presente daudelarik.

Ondoko taulan argi ikusten dira gorabehera horiek:

Haurren presentziarekin	2022			
	Elkarrizketak		Solaskideak	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskara	10	9,3	32	9,1
Gaztelania	84	78,5	285	80,7
Biak	3	2,8	9	2,5
Nahasian	1	0,9	2	0,6
Bertze hizkuntzak	9	8,4	25	7,1
Osoara	107		353	

5. taula: Hizkuntzen kale erabilera haurren presentziarekin, elkarrizketa eta hiztun kopurua (kopurua eta ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022.




7. grafikoa: Hizkuntzen kale erabilera haurren presentziarekin, elkarrizketak (ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022

Haurren presentziarik gabeko elkarrizketetan nabarmen egiten du beheiti euskararen erabilerak. Horiek ere 2021eko EHko Kale Neurketan atera diren datu orokorretan atera direnak. Haurrik gabeko elkarrizketetako ohitura soziala gaztelaniazkoa gehiago da Garesen ere, 7,2 puntu pasa egiten baitu goiti hizkuntza horretako elkarrizketa kopuruak, eta 7,4 puntu solaskideen aldagaia aintzat hartuta.

Haurren presentziarik gabe	2022			
	Elkarrizketak		Solaskideak	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskara	5	2,1	10	1,7
Gaztelania	204	85,7	509	85,5
Biak	1	0,4	3	0,5
Nahasian	3	1,3	8	1,3
Bertze hizkuntzak	25	10,5	65	10,9
Oso tara	238		595	


6. taula: Hizkuntzen kale erabilera haurren presentziarik gabe, elkarrizketa eta hiztun kopurua (kopurua eta ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022



8. grafikoa: Hizkuntzen kale erabilera haurren presentziarik gabe, elkarrizketak (ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022

Ondorengo grafikoan ikusi daiteke nola den haurren presentziarekin ala gabe egiten den euskararen erabilera, 2022ko neurketaren arabera:

Hizkuntzen erabilera, haurren presentziaren arabera



9. grafikoa: Hizkuntzen kale erabilera haurren presentziarekin eta presentziarik gabe, elkarriketak (ehunekotan).
ITURRIA: Garesko KN 2022

5. ONDORIOAK

2021ean Klusterrak egindako Kale Neurketen emaitzen arabera Iruñerriko eskualdean euskararen erabilera % 3,1eko izan da, Garesen, aldiz, % 4,3koa. Bertako gune soziolinguistikoaren arabera, espero litekeena baino datu handiagoa erdietsi du euskararen erabilerak Garesen.

Kale neurketatik ateratako datu horiek denak aztertu ondotik, Garesen euskaraz gehien mintzatzen den pertsonaren profila honako hau litzateke: 25-65 urte arteko emakumezkoa.

Hala ere, orokorkerietan aritu beharrean, honako hauek dira 2022ko kale neurketatik atera diren datu eta ondorio azpimarragarrienak:

- Garesen aditu diren elkarrizketen % 4,3 izan dira euskaraz, eta % 2,4 euskaraz eta gaztelaniaz nahasian. Hau da, elkarrizketen % 6,7tan euskararen presentzia egon da.

Hiztun kopuruari dagokionez, bertze horrenbertze erran liteke. 2022an erregistratutako solaskideen % 4,3 izan baitira euskaraz ari zirenak, eta % 2,4 nahasian ari zirenak. Hau da, euskara presente egon da hiztunen % 6,7n.

Turismoak Garesen duen eragina ikusita, arazoa da desberdintzea euskara darabiltenen artean zenbat diren bisitari. Dena den, ibilbideak egitean turismo gutien dabilen guneak eta orduak hautatu dira informazioa gehiegi ez distortsionatzeko.

- Datu erranguratsuak dira, “bertze hizkuntzak” % 9,9 izatea. Turistak edo bertan erroldatutako etorkinak diren ez dakigu, kopuru handia da. Garesko Udalak emandako datuen arabera 37 nazionalitate desberdinetako 403 pertsona bizi dira 2022an, Garesko biztanleriaren % 13,87.

Aitzinerat begira bertan erroldatutakoak diren horiekin eragiteko talde handia dago.

- Adinari dagokionez, 0-14 urtekoak dira helduen ondotik euskara gehien erabiltzen dutenak, heldu diren urteetan kontuan hartu beharreko adin tartea izan beharko da hori, belaunaldi gazteetan euskararen ezagutza handia izanen baita etorkizunean.

15-24 urte artekoen kasua ere adierazgarria da, erabatekoa da hutsunea, helduekin batera, baina aipatzekoa da adin tarte hauek gutien jaso diren elkarrizketak eta hiztunak izan direla. Aitzinean erran bezala, behaketak egin direlarik hainbat gertakari izan dira; ekaineko bero izugarriak eta suteak bai Garesen baita inguruko herrietan ere. Agian honek bere eragina izan du.

Garesen euskara gehien erabiltzen dutenak helduak dira, baina aldi berean, gaztelania gehien erabiltzen duen adin tartea ere bada 25-64: behatutako helduen % 45,8 ari baitziren hizkuntza horretan.

Arestian ere aipatu da generoaren aldagaia txertatuta gazteen artean euskararen erabilera bermatzen dutenak emakumeak direla.

- Euskararen erabileraren indarguneetako bat 0-14 urte arteko herritarren artean egon liteke. Honek erran nahi baitu etorkizunean euskararen erabilera handituko dela. Baita 25-64 urtekoak ere haur eta gazteendako erreferente izaten direlako.

Erraten ahal da 25-64 arteko adin tartean haurren presentziak bermatzen ahal duela euskararen erabilera hori, adin tarte horretan izaten baitira Garestarrak guraso. Ikusi den moduan, haurrak elkarrizketaren parte direlarik euskararen erabilerak nabarmen egiten du goiti. Euskara hutsezko elkarrizketetan bortz puntuko aldea dago, eta gaztelaniarekin nahasian solas egiten dutenen kopurua kontuan hartuz gero, 6,3 puntukoa da.

Akitzeko, aldagai hauek kontuan hartzea eta bertan adieraztea inportantea deritzogu, hauek guztiak eragina izaten ahal baitute:

- Egitasmoa prestatu zelarik kale neurketa 2021eko urrian egitea aurreikusitako zen, Soziolinguistika Klusterrak aholkatzen duen gisan, baina Garesko euskara zerbitzuan teknikaririk ez zen egon garai horretan eta egitasmoa gibelatu behar izan zen, hori horrela, ekainean egitea erabaki zen. Garai aldaketa honek bere eragina izan duela pentsatzen dugu; bertzeak bertze, ekainean turismoaren eragin handiagoa dago, eskola ordutegiak trinkotu egiten dira, eta arratsalde haur eta gurasoak sakabanatuago daude, eta abar.
- Ekainean ez-ohiko beroa egin zuen, izugarria, karraketan jende gutiago ibili zen tenore horietan eta oso zaila zen tabernetan ez zegoen norbait topatzea, gehiengoa barruan baitzegoen aire girotuarengatik.
- Ekainaren 23an, behaketa egunez aldatzea adostu zen, ekainaren 18an eta 19an Garesen eta inguruko herrietan suteak egon zirelako, herria ez zegoen ohiko egoeran; suhiltzaileak, polizia, auzolana... honek eragina izaten ahal zuenez ekainaren 27ra gibelatu zen hondar behaketa.

6. ERANSKINAK

6.1. APLIKAZIOA

KALE NEURKETA GARES 2022

<https://docs.google.com/forms/u/2/d/1smFo8mNu0Yn...>

KALE NEURKETA GARES 2022

* Derrigorrezkoa

1. Elkarrizketako hizkuntza *

Markatu aukera bakarra.

- Euskara
- Biak nahasian (solaskide berberak bi hizkuntzak tartekatzen dituzte)
- Gaztelania
- Biak [bat(zu)ek euskaraz beste bat(zu)ek gazteleraz]
- Beste hizkuntza bat

2. Elkarrizketako partaide kopurua *

Markatu aukera bakarra errenkada bakoitzean.

	1	2	3	4	5	6	7	8
Kopurua	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

3. Haurrak edota umeak elkarrizketako partaide dira? *

Markatu aukera bakarra.

- Bai
- Ez

4. Haurrak (0-1 urte)

Markatu aukera bakarra errenkada bakoitzean.

	1	2	3	4	5	6	7	8
Neskak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Mutilak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

5. Umeak (2-14 urte)

Markatu aukera bakarra errenkada bakoitzean.

	1	2	3	4	5	6	7	8
Neskak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Mutilak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

6. Gazteak (15-24 urte)

Markatu aukera bakarra errenkada bakoitzean.

	1	2	3	4	5	6	7	8
Neskak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Mutilak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

7. Helduak (25-64)

Markatu aukera bakarra errenkada bakoitzean.

	1	2	3	4	5	6	7	8
Emakumeak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Gizonak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

8. Adinekoak (65etik aurrera)

Markatu aukera bakarra errenkada bakoitzean.

	1	2	3	4	5	6	7	8
Emakumeak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Gizonak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

9. Oharrak

Eduki hau ez du Google-k sortu edo babestu.

Google Inprimakiak

BIBLIOGRAFIA

2016ko IV inkesta soziolinguistikoa: <https://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/datu-soziolinguistikoak/inkesta-soziolinguistikoak>

Azterketa soziolinguistikoa 2018:

file:///tmp/mozilla_aek0/azterketa_sociolinguistikoa_2018-1.pdf

Hizkuntzen erabileraren kale neurketa 2021, Euskal Herria:

<https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-euskal-herria-2021-2/>